

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

141. zenbakia**Data 2011-07-26****77 orria**

7 Udal Administrazioa

TOLOSAKO UDALA

UDALARENAK DIREN EDO UDAL ADMINISTRAZIOAKOAK DIREN BIDEEN ERABILERA PRIBATIBOAREN EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

TOLOSAKO UDALA

Udalarenak diren edo udal administrazioakoak diren bideen erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren ordenantza erregulatzaileraren behin betiko onarpena.

Udalbatzak, 2011ko martxoaren 16an, besteak beste, udalarenak diren edo udal administrazioakoak diren bideen erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren ordenantza erregulatzailerari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Hasierako onarpena 2011ko apirilaren 11ko 69 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman zen eta hogeita hamar egunez jendaurrean egon zen.

Jendurreko epean ez zen erreklamaziorik, ez eta iradokizunik aurkeztu.

2011ko martxoaren 16ko udalbatzaren erabakiaren arabera, eta Tokiko Araubide Orokorra xedatzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua arabera, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, ordenantza behin betiko onartutzat jotzen da.

Ondorioz, bere osotasunean argitaratzen da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantza.

1. artikulua. Xedea.

Udal honek, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 25. artikuluan, Toki Erakundeen Ondasunen Araudian eta horiekin bat datozen gainerako lege xedapenetan aurreikusitakoarekin bat, udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideen erabilera arautzen du, horiek hondatu ez daitezken. Aipatutako bideak arrazoi askorengatik honda daitezke: Edozein ibilgailu mota ibiltzen delako bide horietatik basoak edo harrobiak ustiatzeko, meatze lanak egiteko, lurak mugitzeko eta, oro har, lanak egiteko. Erabilera arautzearen beste arrazoi bat aipatutako jarduera eta lan horiek eragin ditzaketen kalteak ahal den heinean saihestea da, libre zirkulatzeko eta Tolosako herritarren atsedean eskubideak errespetatuz.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

3. artikulua. Lizentziak.

Ondorengo hauek eskatu beharko dute dagokion lizentzia: Bide publikoak erabiltzen dituzten jarduera edo lanen sustatzaileek edo, horien ordez, jarduera horiek gauzatzear arduratzen diren kontratista edo garraiolariak. Horiek, behar bezala betetako eskaera inprimakia aurkeztu beharko dute.

Udalak ezin badio sustatzaileari lizentzia eskaera exijitu, sustatzaileak edo, horien ordez, jardueraz arduratzen diren kontratistek edo garraiolariak jarduerari edo lanei ekingo dietela jakinaraziko diote udalari jarduera edo lan horiek

hasi baino lehen.

4. artikulua. Erabilera, tona kopuru eta abiadura mugak.

Udalak ibilgailu automobilen, berezien, ziklomotorren edo edozein motatako makinariaren zirkulazioa mugatu edo debeka dezake, bizilagunak ahalik eta gutxien kaltetzeko eta etengabeko zirkulazioagatik, tona kopuruagatik edo udal titulartasuna duten udalak kudeatzen dituen bideak modu desegokian erabiltzeagatik sortutako kalteak ahalik eta gehien saihesteko. Hori egin baino lehen txosten teknikoa beharko du udalak.

Udalak, txosten teknikoa oinarri hartuta eta inguruaren berezitasunak eta bideak kontserbatzea, zaratagatiko eragozpenak sortzea edo bizilagunak kaltetzea bezalako kontuak aintzat hartuta, kasu bakoitzean arautzeko modukoak diren ibilbidea, zirkulazio maiztasuna, ibilbide alternatiboak, zirkulazioa eteteko baldintzak, erabilera ordutegia, kontserbazio eta garbiketa neurri bereziak, gehienezko abiadura eta abar zehaztu ahal izango ditu.

Arau orokor moduan, hala hirigunean nola landa gunean baimenduta dagoen gehienezko tona kopurua 3, 5 tonakoa da. Salbuespen gisa, eta aldi baterako, tona kopuru handiagoa duten ibilgailuei zirkulatzeko baimena eman diezaieke udalak, kasu zehatzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Landa gunean baimenduta dagoen gehienezko abiadura 30 km/h-koa da. Salbuespen gisa, eta aldi baterako, udalak beste abiadura muga batzuk ezarri ahal izango ditu, kasu zehatzaren berezitasunak kontuan hartuta.

5. artikulua. Luzapena.

Aprobetxamendua lizentzian adierazitako eguna baino lehen amaituko ez balitz, dagokion luzapena eskatu beharko da.

6. artikulua. Dokumentuak aurkeztea.

Honako hauek aurkeztu behar ditu garraiolariak uneoro: Lizentzia baimentzen duen udal erabakiaren jakinarazpenaren jatorrizkoa edo kopia eta prezio publikoa ordaindu izana eta fidantza gordailutu izana egiaztatzen duten ordainketa gutunen jatorrizkoak edo kopiak. Aipatutako dokumentuak agentei edo udal arduradunei aurkeztu beharko dizkiete, horiek eskatzen dizkietenean.

Lizentzia eta fidantza aurkeztea exijitu ezin daitekeenetan, jardueraren sustatzaileak, edo haren orde, kontratistak edo garraiolariak uneoro aurkeztu eta erakutsi beharko ditu jarduera edo lan zehatzarekin identifikatzen dituen beharrezko dokumentuak.

7. artikulua. Fidantza.

Lanak hasi aurretik fidantza gordailutu beharko da eta prezio publikoa –beharrezkoa balitz– ordaindu izana, eta fidantza gordailutu izana egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko da.

Fidantza bi modutan ordaindu daiteke: Eskudirutan edo egon daitezkeen kalteen aurrean erantzungo duen banku abalaren bitartez. Aseguru polizaren bitartez ere ordaindu ahal izango da, udalarekin aurrez adostu ondoren.

Eguraren garraioaren kasuan ez da beharrezkoa izango fidantza gordailutzea, baldin eta egurra etxeko erabilerako beharrak hornitzeko garraiatzen bada eta 100 m³ baino gehiago garraiatu behar ez bada.

Arau orokor gisa, ondorengo eragiketa hau egingo da fidantzaren zenbatekoa kalkulatzeko: 4,97 €bider garraiatutako material kopurua m³-tan.

Hala ere, egin beharreko jardueraren edo lanen berezitasuna edo tamaina dela eta, aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa ez den beste bat zehaztu ahal izango du udalak, txosten teknikoa egingo ondoren.

Fidantzarik aurkeztu behar ez denean, udalak eta jarduera edo lanen sustatzaileak, edo haren orde, kontratistak edo garraiolariak, bideen kontserbazio egoerari buruzko inbentarioa egingo du jarduera edo lanak hasi aurretik, eta lanak amaitu ondoren, sustatzaileak, kontratistak edo garraiolariak bideen jatorrizko kontserbazio egoerara itzuli beharko ditu.

8. artikulua. Bideak garbitzea.

Aprobetxamenduaren onuradunek bideen erabilera komuna eta publikoa bermatu beharko dute, eta hori egiteko beharrezkoak diren konponketa eta garbiketa guztiak egingo dituzte aprobetxamenduak irauten duen bitartean. Edonola ere, zirkulazioa ez kaltetzeko behar adina neurri hartu beharko dituzte.

Horregatik guztiagatik, jardueraren edo lanen ezaugarri zehatzekin bat, kasu bakoitzean hartu behar diren garbiketa eta kontserbazio neurriak zehaztuko dira. Horien artean: Drainatze garbiketa, upel kamioia, ekortzeko makina, ur baltsa eta abar.

9. artikulua. Txosten teknikoak.

Udaleko zerbitzu teknikoek txostenak (argazkiak, bideoak, planoak) egingo dituzte bideak erabili aurretik eta erabili ondoren.

Udaleko organo eskudunak udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideak erabiltzeko baldintza bereziak zehaztuko ditu, gauzatu beharreko jarduera edo lanen arabera eta udaleko zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren.

10. artikulua. Konponketa lanak.

Jarduera garatzen edo lanak gauzatzen diren bitartean nahiz horiek amaitzean, eta udal txosten teknikoa aztertu ondoren, egin behar dituen konponketen berri emango zaio lizentziaren titularrari edo jarduera edo lanen arduradunari, eta konponketa horiek egiteko duen epea adieraziko zaio. Aipatutako epea amaitzean egin beharreko konponketak egin ez baditu, udalak konponketa horiek egiteko ardura beste bati emango dio. Konponketak obligaziodunak ordaindu beharko du, eta, beraz, gordailututako fidantzatik dagokion zenbatekoa kenduko zaio. Fidantza nahikoa ez balitz, kalte guztiak estaltzeko falta dena eskatuko zaio.

Kalteak konponezinak izango balira, udalari kalte-galerak ordaindu beharko dizkio. Horiek suntsitutako ondasunen balio bera edo hondatutakoaren zenbateko bera izango dute.

Fidantzarik aurkeztu behar ez denetan, hondatutakoa konpontzeko duen epea jakinaraziko dio udalak jarduera edo lanen sustatzaileari, edo haren orde, kontratistari edo garraiolariari.

Hala ere, hondatutakoak bizilagunei bideak modu normalean erabiltzea galarazten badie, konponketa hondatu eta berehala egin beharko da. Hala egiten ez bada, udalak konponketak egiteko ardura beste bati emango dio eta obligaziodunak horiek ordaindu beharko ditu.

11. artikulua. Baja aitortpena.

Aprobetxamendua edo erabilera amaitu ondoren, interesdunek horren berri eman behar dute, edo, lizentziapeko aprobetxamenduen kasuan, baja aitortpena aurkeztu beharko dute. Bajak aurkeztu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

12. artikulua. Arau-hausteak.

Udal titulartasuna duten edo udalak kudeatzen dituen bideak ordenantza honetan aipatutako baimenik gabe erabiltzeak edo ordenantza honetan aipatutako betebeharrak edo udal zerbitzu teknikoek zehaztutako baldintza bereziak ez betetzeak ondorio hauek izan ditzakete: Lizentzia baliogabetzea, jarduera edo lanak gelditzea edo/eta zirkulazioa debekatzea. Ondorengo arau hauen arabera zigortuko dira:

Ondokoak arau-hauste arinak dira:

— 8. artikuluan aipatzen den dokumentazioa ez aurkeztea eskatzen denean.

— Bideak erabiltzen diren bitartean bideen erabilera publikoa bermatzeko beharrezkoak diren konponketak eta

garbiketak ez egitea.

— Lanak baimen eskaeran adierazten den eguna ez den beste batean hastea.

Ondokoak arau-hauste larriak dira:

— Lanak amaitzeko baimenean zehaztutako epea gainditzea, dagokion luzapena eskatu gabe.

— Material bilketak baimenik gabeko tokietan egitea.

— Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.

Ondokoak arau-hauste oso larriak dira:

— Bide publikoak erabiltzea dagokion baimenik gabe.

— Udal zerbitzu teknikoek zehaztutako edozein erabilera baldintza berezi ez betetzea.

— Fidantza ez gordailutzea eta banku abala eta aseguru poliza aurkeztea lanei ekin baino lehen.

— Abiadura eta tona kopuruaren mugak ez betetzea.

— Baimenik gabeko ibilgailuak erabiltzea.

— Arau-hauste larriak behin eta berriro errepikatzea.

13. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza honetako arau-haustek isunekin zigortuko dira, jarraian adierazten den eskalaren arabera:

— Arau-hauste arinak: 30 € eta 100 € arteko isuna.

— Arau-hauste larriak: 101 € eta 1.000 € arteko isuna.

— Arau-hauste oso larriak: 1.001 € eta 3.000 € arteko isuna edo/eta lizentzia baliogabetzea eta lanak berehala gelditzea.

Zigortzeko eskumenari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

Tolosa, 2011ko uztailaren 20a.—Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea. (8424)

ERANSKINA

BIDEAK ERABILTZEKO LIZENTZIA		LICENCIA PARA LA UTILIZACION DE CAMINOS	
Sinatzaileak, emandako datuekin identifikatuak, udal titulartasuna duten edo Udalak kudeatzen dituen bideak erabiltzeko beharrezko baimena Eskatzen dio Tolosako Udalari Tolosa,		El firmante, cuyos datos personales se indican, SOLICITA al Ayuntamiento de Tolosa, la perceptiva licencia para la utilización de los caminos de titularidad o administración municipal.	
Eskatzailearen sinadura		Firma del/la solicitante	
ESKATZAILEAREN DATUAK		DATOS DEL/LA INTERESADA	
Izena/ Izen soziala		Nombre/Razón Social:	
Deiturak:		Apellidos:	
NAN		D.N.I.:	
Helbidea:		Domicilio:	
Herria / Municipio:		PK / C.P.:	Telefonoa:

TITULARRAREN DATUAK		DATOS DEL TITULAR	
Izena/ Izen soziala		Nombre/Razón Social:	
Deiturak:		Apellidos:	
NAN		D.N.I.:	
Helbidea		Domicilio:	
Herria / Municipio:		PK / C.P.:	Telefonoa:
JARDUERARI BURUZKO DATUAK		DATOS RELATIVOS A LA ACTIVIDAD	
Egin beharreko lanen azalpena:		Descripción de las obras a realizar:	
Erabiliko diren bideak zehaztea:		Detalle de los caminos que se van a utilizar:	
Lanen hasiera eta amaiera datak:		Fecha de comienzo y fin de las obras:	
Bestelakoak:		Otros datos:	
AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK (adierazi)		DOCUMENTOS QUE APORTA (señalar)	
Jabearen edo titularraren baimena (1)		Autorización del propietario o titular	
Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena (2)		Autorización de la Diputación Foral de Gipuzkoa	
<p>(1) Garraiatuko diren materialen jabeak, betiere lizentziaren titularrak ez badira, baimen honetatik eratorritako betebeharrak betetzearen arduradun solidarioak izango dira.</p> <p>(2) Gipuzkoako Mendiei buruzko urriaren 20eko 7/2006 Foru Arauaren 56. artikuluan xedatutakoarekin bat, egurra mozteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Baso Zerbitzuaren baimena.</p> <p>Lizentzia hau udal titulartasuna duten edo Udalak kudeatzen dituen bideen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia arautzen duen Ordenantzaren mende dago.</p>		<p>(1) Los propietarios de los materiales transportados siempre y cuando no sean titulares de la licencia serán responsables solidarios del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la presente autorización.</p> <p>(2) En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 56 de la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa la correspondiente autorización del Servicio Forestal de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la tala de madera.</p> <p>Esta licencia esta sujeta a lo establecido en la Ordenanza reguladora para la utilización privativa o el aprovechamiento especial de los caminos de titularidad o administración municipal.</p>	
<p>Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 1999/15 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, galdera sorta hau betetzerakoan emandako datuak Tolosako udalaren jabetzako fitxategi batean sartuko dira, eta dagokion eskabidea izapidetzeko beharrezkoak diren administrazio prozeduretan aurreikusitakoaren arabera erabiliko dira. Era berean, datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien kontra egiteko Tolosako udalera (Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa, Gipuzkoa) jo dezakezula jakinarazten dizugu.</p>		<p>En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos que nos facilite mediante la cumplimentación del presente formulario pasara a formar parte de un fichero propiedad del Ayuntamiento de Tolosa y se utilizarán en los términos previstos en los procedimientos administrativos que sean necesarios para la tramitación de la correspondiente solicitud. Asimismo, le informamos que puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en Plaza Zaharra 6, 20400 TOLOSA (Gipuzkoa).</p>	

Tolosan, 20..(e)koren(e)an.

En Tolosa, a de de 20.....

Eskatzailearen sinadura /Firma del/la solicitante